

BESTELAKO XEDAPENAK

JUSTIZIA ETA GIZA ESKUBIDEEN SAILA

2118

AGINDUA, 2025eko maiatzaren 12koa, Justizia eta Giza Eskubideen sailburuarena, ontzat emateko Aretxabaletako eta Eskoriatzako bake-epaitegietako idazkaritzek eta Leintz-Gatzagako Bake Epaitegiko idazkaritzak osatuta duten Aretxabaleta Elkartearen handitzea.

Egunero legeriak Euskal Autonomia Erkidegoari esleitzen dio bake-epaitegietako idazkaritzen elkarteak sustatu eta egiteko eskumena, Mugape eta Planta Judizialari buruzko abenduaren 28ko 38/1988 Legearen 50.4 artikuluan xedatutakoarekin bat etorritik.

Bake Justiziari buruzko abenduaren 22ko 411/1998 Dekretuaren V. kapituluaren Bake Epaitegietako idazkaritzen elkarteak arautzen dira, eta 18. artikuluan eta hurrengoetan Bake Epaitegietako Idazkaritzen Elkarteak eratzeke bete beharreko baldintzak eta jarraitu beharreko prozedura jasotzen dira, baita dagoeneko eratuta dagoen Elkarte batean Idazkaritzak sartzekotan jarraitu beharreko baldintzak ere, aipatutako Dekretuaren 22.1 artikuluan ezarritakoaren arabera.

Aretxabaletako, Eskoriatzako eta Leintz-Gatzagako udalek eskabide bat aurkeztu dute sail honetan, Aretxabaletako eta Eskoriatzako bake-epaitegietako idazkaritzek eta Leintz-Gatzagako Bake Epaitegiko Idazkaritzak osatutako elkartearen sartzeko, eta, eskabidearekin batera, elkarte hori onartzeko nahitaezko agiriak aurkeztu dituzte.

Horrenbestez, Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiak txostena egin ondoren, eta legezko manuak eta aplikatu beharreko gainerakoak ikusita, honako hau

EBAZTEN DUT:

1. artikulua.— Xedea.

Onespena ematea Aretxabaletako eta Eskoriatzako bake-epaitegietako idazkaritzek osatutako Aretxabaleta Elkartearen handitzeko, Leintz-Gatzagako Bake Epaitegiko Idazkaritza ere sartuta. Aretxabaletako egoitza mantenduko du elkarteak.

2. artikulua.— Langileez hornitzea.

Aretxabaleta eta Eskoriatza udalerrietako Bake Epaitegietako Idazkaritzen Elkartearen, gaur egun, Justizia Administrazioako langileek daramate; Kudeaketa Prozesal eta Administrazioaren Kidegoko pertsona batek (Elkarteko Bulego Judizialeko idazkaria da bera) eta Laguntza Judizialeko Kidegoko kide batek.

Leintz-Gatzagako udalerria elkartearen sartzeak zenbateko lan-karga gehigarria ekarriko duen eta eman beharreko zerbitzuetan zer-nolako eragina izango duen aztertu ondoren, ez da beharrezko jotzen egungo langile-zuzkidura handitzea.

3. artikulua.— Funtzionamendu-araubidea.

1.— Gerora onartuko den funtzionamenduko eta barne-antolamenduko araubidea bete beharko du Elkarteak. Hala ere, behin-behinean, dagoen antolamendu-eskemari eustea proposatzen da, udalerriek aurkeztutako memorian jasotzen den bezala, hargatik eragotzi gabe Leintz-Gatzagako udalerrira joatea Justizia Administrazioako langileak egotea behar-beharrezkoa denean.

2.– Elkartea martxan jarri eta hiru hilabete igaro ondoren, Elkarteko Bulego Judizialeko idazkariak behin betiko lan-plana aurkeztuko dio Justizia Administrazioako Zuzendaritzari, sailak erabaki dezan aurkeztutakoa onartu, ala hasieran proposatutakoa berretsi. Plan horretan, Bake Justiziarri buruzko abenduaren 22ko 411/1998 Dekretuaren 25. artikulua dakarrena jasoko da.

3.– Araubide horretan gerora aldaketarik egin nahi izatekotan, aipatutako zuzendaritzari jakinarazi beharko zaio aurrez, Justizia Sailburuordetzak onartu behar du-eta.

4. artikulua.– Elkartea martxan jartzea.

1.– Elkartea hilabeteko epean jarriko da jardunean, dagokion ebazpena EHAAr argitaratu eta hurrengo egunetik kontatzen hasita.

2.– Justizia Sailburuordetzaren ebazpen baten bidez zehaztuko da noiz hasiko den jardunean.

AZKEN XEDAPENETAKO LEHENENGOA.– Betearazteko neurriak eta jarraibideak.

Justizia Sailburuordetzari ahalmena ematen zaio agindu honetan xedatutakoa betearazteko behar diren neurriak eta jarraibideak har ditzan.

AZKEN XEDAPENETAKO BIGARRENA.– Errekurtsoak.

Ebazpen honek amaiera ematen dio administrazio-bideari, eta, beronen aurka, aukerako berraztertze errekurtsoa aurkez dakioke ebazpena eman duen organoari, hilabeteko epean, ebazpena Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik kontatzen hasita, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 123. eta 124. artikuluetan xedatutakoaren arabera. Bestela, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkez daiteke, Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzien Salan, bi hilabeteko epean.

Vitoria-Gasteiz, 2025eko maiatzaren 12a.

Justizia eta Giza Eskubideen sailburua,
MARÍA JESÚS CARMEN SAN JOSÉ LÓPEZ.